

30 urte

STEE-EILAS



Nicolás Alcorta 3, 13.lonja; 48003 Bilbao ☎944100298 📠609163566 bizkaia@stee-eilas.org

STEE-EILASek gogor salatu nahi ditu Igor Portuk Guardia Zibilaren eskutik jasandako torturak, zalantzarako tarte gutxi eskaintzen baitu Donostiako ospitalean egindako txosten medikuak. Sinestezina eta horregatik onartezina iruditzen zaigu Rubalcaba Barne Ministroak emandako azalpen ofiziala, ikerketarik zabaldu gabe, tortura kasu larri hau estali nahian. Ikaragarriak eta salagarriak dira, halaber, Bono ministro ohiak bota dituen astakeriak.

Tamalez, beste tortura kasu baten aurrean gaude berriro ere, duela aste batzuk Gorka Lupiañezek jasandakoa bezalaxe. Ohikoa bihurtu den zerrenda beldurgarri batean kokatzen dira, espainiar estatuan polizien aldetik tortura kasuak ez baitira gertakari isolatuak, Amnesty International bezalako erakunde independente batek behin baino gehiagotan adierazi duen bezala.

Ezinbestekoa da kasu honen ikerketa argitasun osoz muturreraino eramatea eta erantzukizunak agerian uztea, beste behin inpunitatea garaile atera ez dadin. Tortura desagertzen ez den bitartean, euskal gatazka areagotu besterik ez da egingo. STEE-EILASek berretsi nahi du gatazkaren konponbiderako elkarrizketa dela bidea eta indarkeria mota guztiak desagertzea, giza eskubide guztiak guztiontzat errespetatuz.

2008ko urtarrilak 9

STEE-EILASeko Batzorde Iraunkorra

El sindicato STEE-EILAS quiere denunciar públicamente las torturas sufridas por Igor Portu por parte de la Guardia Civil, ya que el informe médico del hospital Donostia deja poco margen para la duda. Nos parece increíble la versión oficial que se está dando de los hechos, y por ello inaceptables las declaraciones efectuadas por el ministro Rubalcaba que sin esperar a la investigación quiere ocultar este lamentable hecho. A estas declaraciones se han venido a sumar los incalificables despropósitos del ex-ministro Bono carentes de todo tipo de justificación.

Desgraciadamente nos encontramos ante un nuevo caso de torturas, a escasas semanas de los sucesos denunciados por Gorka Lupianez. Nuevamente, un organismo independiente como Amnistía Internacional ha denunciado lo que no es un hecho aislado sino parte de una forma de actuar a todas luces inadmisibles.

Es imprescindible que la investigación llegue hasta sus últimas consecuencias para que estos hechos no queden impunes. La continuidad de la tortura no hace más que avivar el conflicto. Desde STEE-EILAS, queremos volver a repetir que la vía para la resolución del conflicto es la negociación; dentro de un escenario donde el respeto a los derechos humanos y la total ausencia de violencia estén garantizados.

9 de enero de 2008

Comisión Permanente de STEE-EILAS